

***Joxe Zapirainen bertso-malkoak. Edo nola arindu arimaren sufrimenduak bertsoen bidez.***

**PIO PEREZ**

1936ko urriaren 21tik 22ra arteko gauean komunikatu zitzairen zapiraindarrei Burgosetik ekarritako sententziaren berrespena: Jose Ramon eta Antonioren zatitza heriotza-zigorra eta Juan Jose eta Salbadorren zatitza bizi arteko espetxe-zigorra. Heriotza-zigorra hurrengo goizean exekutatu zen, espetxeke patioetan.

[Joxe Zapirainek](#) semeen zigorra jakin zuenean bertsoetan aurkitu zuen kontsolamendua, eta kantari hasi zen, negarrari eman beharrean. Zergatik kantatu zuen aita horrek? Nola kanta zitekeen egoera animiko hartan? Zerk zeraman aita hura semeen galerari bertsoen bidez aurre egitera? Joxek nola transmititu zezakeen bi seme fusilatuen galerak uzten zion hutsunea? Nola kanta edo konta daiteke izugarrikeria?



[Pio Perez Aldasoro](#) (Pasai Donibane 1963). Gizarte Antropologian doktorea eta UPV/EHUko irakasle agregatua, Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Egun, (MHLII) Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan Ikertaldearen partaidea da.

---

***Hezkuntzaren ekologia. Antropologo bat bertsolariaren eskolan***

**ERIC DICHARRY**

Liburu berri bat heldu zaigu Eric Dicharry antropologoaren eskutik: *Hezkuntzaren ekologia. Antropologo bat bertsolariaren eskolan*. (L'Harmattan argitaletxea, 386 orrialde).

Eusko Ikaskuntzaren laguntzari esker egin ahal izan duen ikerlana du hor agertzen euskal antropologoak. Zein dira sekretuak jakintza bereganatzeko? Nola hoberegin jakintzaren transmisioa? Nola ikasi inprobisatzeko? Nola inprobisatu ikasteko? Zer da modelo alosteriko bat? Zer gehi ekartzen ahal dio bertso eskolako hezkuntzaren sistemari? Gisa hortako galderei ditu bere ihardespenak ekartzen autoreak, adibide eta proposamen konkretu zenbaiten bidez.



[Eric Dicharry](#) Jauna lapurtarra da. Baionan sortu da eta Ziburun bizi da. Antropologoa da. Maskaradak, euskaldunen barrea, arte garaikidea, bertsolaritza, hezkuntza zientziak ikertu zituen. Bere tesia Pariseko Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales-en aurkeztu zuen 2009 urtean, Daniel Fabre antropologoaren zuzendaritzapean. Geroztik Baionako Herriko Etxeak eta Eusko Ikaskuntzak urteroko euskal kultur saria 2009an eskuratu zuen, Barandiaran beka ere bai urte berean eta Eusko Ikaskuntzako Ginebrarat, UNIGE-rat, joateko beka 2010 urtean. 2012an, europako Txinbaddia proiektua ikertzeko Eusko Ikaskuntzak beste beka bat eman dio.

---

### **Joxepa Antoni Xenpelar**

**ELI PEREZ**

[Joxepa Antonik](#) etxea ez ezik, lantegia eta jostundegia ere bazituen bertsoleku. Hortxe entzungo zituzten eta kantatuko Joxepa Antoni Xenpelarren bertsoak entzuleek, emakumeek batez ere, eta hortxe paper muturretan idatzi bertsolariak berak eta lekukoek. Baina bertsolari honek beste urrats bat ere egin zuen: herrian inor bazen Enrike Elizetxearen enbidoari paperean idatzitako bertsoez ausardiaz erantzun eta baita zailago dirudiena: *Resurreccion Maria Azkuek (Kirikiñoren laguntzaz) 1902 eta 1903an Bilbon plazaratzen zuen euskal aldizkari batera, Ibaizabala, bidali kajistari erantzuteko bertsoak, argitara zitzaten. Orduko bide eta komunikabideak ez ziren oraingoak —orduan Bilbo orain baino “urrutiago” egongo zen, horrela esatea badago— eta, batez ere, emakume askok (Joxepa Antoni bezalako ikasketarik gabeko zenbatek?) aukera edo adorea ere ez zuten izango bere lanak aldizkariren batera bidaltzeko. Joxepa Antonik bai, eta horrela emakume bertsolariantzat beste plaza bat irabazi zuen.*



[Elixabete Perez Gaztelu](#) (Errenteria, 1961). Euskal Filologian doktorea (*Koldo Mitxelena*ren euskara noranahikotzea: *aitzindariak, hiztegia eta hizkuntzalaritzako hitz berezituaren azterketa*, 1994). Deustuko Unibertsitateko irakaslea, egun, Komunikazioko Graduan. Euskaltzain urgazlea (2006). Hizkuntza eta komunikazioa ditu batez ere ikergai.

Argitaratutako liburuetakoz batzuk:

1995. *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitatea*. Errenteria: Errenteriako udala.

2013. [Joxepa Antoni Aranberri “Xenpelar” \(1865-1943\)](#). Errenteria: Errenteriako Udala.

2012. Esther Zulaikarekin batean. *Idatziz komunikatu. Gazteak eskolan idazten*. Deustuko Unibertsitatea.

*Halaber, Bidegileak* sailean hainbat lan argitaratu ditu, besteak beste Juan Frantzisko Petriarena “Xenpelar” (2011) eta Juan Mari Lekuonari (2005) buruzko aleak.

### ***Mexikoren besoetan bertsoetan***

#### **MIREN ARTETXE eta IÑAKI MURUA**

Joan den abuztuan, Miren Artetxe eta Iñaki Murua Mexikon barrena aritu dira kantuan, *5ª Jornada Iberoamericana* jardunaldiaren baitan. Latinamerikako eta Europako hainbat inprobisatzaile batzen dira jardunaldi hauetan, eta ordezkaritza bakoitzak bere inprobisatzeko modua erakusten du oholtza gainean, bakarka zein beste herrialdeetako inprobisatzaileekin oholtza konpartituz. Elkartruke honek osatzen du jardunaldien muina eta bihotza, eta hartu-eman horretan bizitakoak gogoetarako bide ematen du, halabeharrez. Hitzaldi honetan Miren Artetxek eta Iñaki Muruak oholtzako bizipenak eta horiek eragindako hausnarraldiak kontatzeko ahalegina egingo dute.



[Miren Artetxe Sarasola](#) (Lasarte, 1985). Hendaiar bertsozalea, bertsolaria, hizkuntza eta bidaiazalea. Euskal Filologia ikasi ondoren bertsolaritzaren transmisioari buruzko doktore tesia burutzeko proiektua darabil esku artean.



[Iñaki Murua Jauregi](#) (Gabiria, 1956). Bost urterekin herriko "escuela nacional"ean hasi zen, Leongo maisu erdaldun batekin. Hamalau urterekin Goierri Lanbide Eskolan, Lanbide Heziketa egiteko beharrezkoa zen Batxiler Teknikoa egin zuen. Hemeretzi urterekin alde egin behar izan zuen eta Martutenen dohain hilabete inguru pasa ondoren Gasteizen amaitu zituen ikasketak, egunez lan eta gauz ikasiz. Lanbide Eskolako irakaslea da. Xenpelar saria (1979) irabazi zuen beste sari batzuetan bigarren edo hirugarren eginez. 1982an aurkeztu zen lehen aldiz Txapelketa Nagusira. Finalera iritsi zen 1986 eta 1989koetan. Finalista izan zen Gipuzkoako 1991 eta 1995eko txapelketetan ere. Bertsozale Elkarteko lehendakaria da 2005 geroztik.

## **1986-2009 urteen arteko Txapelketa Nagusien azterketa**

### **MANEX AGIRREZABAL eta BERTOL ARRIETA**

Zein dira azken txapelketetan gehien erabili diren errimak eta oinak? Zein neurri aukeratzeko joera dute bertsolariek kartzelako ariketan, eta zein bilakaera izan du horrek txapelketaz txapelketa? Doinuen erabileran ba al da aldaketa nabarmenik? Gora egin al du euskara batuaren erabilerak azken Txapelketa Nagusietan? Galdera horiek eta gehiago erantzungo dituzte Manexek eta Bertolek, Xenpelar Dokumentazio Zentroan azken 7 Txapelketa Nagusietako bertsoen corpusa aztertu ondoren.



[Manex Agirrezabal](#) (1988, Zumarraga): Informatika ikasketak burutu zituen Donostiako informatika fakultatean. Karrera bukaerako proiektu gisa "Bertsotarako Arbel Digitala" proiektua aurkeztu zuen, bertsoan ikasteko web interfazea, [www.bertso-eskolak.com](http://www.bertso-eskolak.com) helbidean erabilgarri dagoena. Ondoren, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterra egin zuen. Geroztik poesia eta bertso sorkuntza automatikoaren ikerketan dihardu, bere doktorego tesiaren baitan, Mintzolakin zein Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin auzolanean.



[Bertol Arrieta](#) (Zarautz, 1975): Informatikan doktorea da Bertol. Horrezaz gainera, idazle, zinemagile eta gidoigile ere bada. CAF/Elhuyar dibulgaziorako artikulu zientifikoen saria irabazi zuen "Bertsolaritzarako errima aurkitzaile informatikoa" lanarekin. Une honetan EHUko irakaslea da eta IXA taldeko kide.

---

## ***Txapelketa prozesu erritual eta bertsolarien arrazoi sortzailea XXI. mendeko agoran***

### **JEXUX LARRAÑAGA**

Zein dira azken txapelketetan gehien erabili diren errimak eta oinak? Zein neurri aukeratzeko joera dute bertsolariek kartzelako ariketan, eta zein bilakaera izan du horrek txapelketaz txapelketa? Doinuen erabileran ba al da aldaketa nabarmenik? Gora egin al du euskara batuaren erabilerak azken Txapelketa Nagusietan? Galdera horiek eta gehiago erantzungo dituzte Manexek eta Bertolek, Xenpelar Dokumentazio Zentroan azken 7 Txapelketa Nagusietako bertsoen corpusa aztertu ondoren.

[Jexux Larrañaga Arriola](#) (Mendaro, 1961): DBHko irakaslea da, antropologia sozialean doktore. Bertsolari Txapelketa Nagusiak aztertu ditu bere tesian: [Jolas Sakona: txapelketaren prozesu erritual eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI Mendeko agoran](#)

---

***Sinbolismoa eta gizarte gaiak Kubako kantu inprobisatuan***

**PATRICIA TAPANES** soziologo kubatarra.

---

***Kubako kantu inprobisatuaren transmisioa haurrei. Haurren repentismoan espezializatutako tailerrak; arteari zaion errespetuan eta onespenean oinarritutako esperientzia bat.***

**HAYDEE HERNANDEZ** filologo kubatarra.

---

***Musikologiaren talaiatik Kubako kantu inprobisatuari buruz bi hitz. Repentismoa musika genero gisa, Kubako identitatearen adierazgarri; aberriaren ondare.***

**SONIA PEREZ** musikologa kubatarra.

---

***Basarri eta bertsogintza***

**ANDONI EGAÑA**

Basarri sortu zeneko 100 urte bete dira aurten. Horren harira Andoni Egañak Basarrik bertsolaritzari egin ekarpena aztertu du. 1935eko lehen “bertsolari gudu” hura irabazi zuen Basarrik. Lehen bertsolari txapelketa hura Aitzolek eta On Manuel Lekuonak eragindakoa izan zen, Euskal Pizkundearen ardatz gisa zuten, euskal kultura indartzeko; euskal komunitatea ehuntzeko.



[Andoni Egaña Makazaga](#) (Zarautz, 1961). Euskal Filologiako lizentziaduna da. Gaur egun erabat sorkuntzari emana bizi da: bertsolari gisa ez ezik, telebista saioetako gidogintzan eta idazle moduan ere nabarmendu da. Literaturan hainbat esparru jorratu ditu eta euskal prentsan kolaborazio asko egin ditu iritzi-emaile moduan. Disko bat ere badu argitaratua berak idatzitako bertsoekin, eta besterentzat ere idatzi izan ditu kantuak. 80ko hamarkadaren bukaeratik aurrera, 90eko hamarkadan batik bat, bera izan da bat-bateko bertsogintzaren ordezkari nagusietakoa. Bertsolari ez ezik, ikertzaile, aztertzaile eta teorizatzaile moduan ere nabarmendu da Andoni Egaña. Bereziki azpimarratzekoa da bat-bateko bertsoa sortzeko prozesua azaltzeko eta ezagutarazteko egin duen ekarpena. Bat-bateko bertsoa beste kultur adierazpide batzuekin (dantza, trikitia, poesia, musika...) uztartzeko egin diren esperientzia askotan parte hartu du. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide izana da urte askoz, eta Ikerketa Saileko buru. Euskal Herriko bertsolari txapeldun izana da lau edizioetan (1993, 1997, 2001, 2005).

---

## ***Bat-bateko kantuaren ehunaz***

### **JON SARASUA**

Bertsolaritzak badu egun ere ehuntzeko funtzioa. Jon Sarasuak hitz egingo digu horretaz, bat-bateko kantuaren ehunaz: etxeko ehunaz zein ehun unibertsalaz.



[Jon Sarasua Maritxalar](#) (Aretxabaleta, 1966). Kazetaritza eta soziologia ikasketak egin zituen Bilbon, eta Informazio zientzietan doktore da: 1996an aurkeztu zuen "Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari" izeneko doktore tesia. Pentsamenduaren historia irakasten aritu izan da Mondragon Unibertsitatean. Besteak beste, Argia, Jakin, Bertsolari aldizkarietan eta Euskaldunon Egunkarian idatzi ditu artikuluak. Andoni Egañarekin batera, bertsolaritzari eta bertsogintzari buruzko hainbat hausnarketa biltzen dituen "Zozoak beleari" (Alberdania, 1997) saiakera liburua argitaratu zuen, eta honen ondoren, "Biziaren hizkuntzaz: Txepetxekin solasean" (Gara, 1997) gogoeta liburua. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide izan da eta bertsogintzaren gainean egin diren hainbat ikerketeten egile eta eragile.

---

## ***Inprobisazioaren estilo eta ahapaldi ereduak Mexikoko musika tradizionalen generotan***

### **ANA ZARINA PALAFOX**

Mexikoko inprobisazioaren hainbat ezaugarriren berri emango digu Ana Zarina Palafoxek. Mexikon, musika tradizionalaren baitan, festaren momentuan sortzen da bat-bateko kantua, unean uneko testuinguruaren arabera moldatua. Dena den, zenbait lekutan galdu da bat-bateko tasuna. Ez ordea denotan. Aitzitik, zenbait lekutan bat-batean aritzeko tradizioa sendotu egin da egin den transmisio eta sustapen lanari esker. Finean, Mexiko ez baita nazio bakarra, bat eginiko zenbaitzuk baizik.



Musikaria, idazlea eta trobadore mexikarra da [Ana Zarina Palafox Méndez](#) (Ciudad de México, 1965). Etnomusikologian aditua eta kultur kudeaketan ere ikasketak eginak ditu. Gaur egun, Mexikoko Liefde A.C. elkartearen ari da lanean, genero indarkeriaren alorrean; gobernuaren hainbat erakundeekin, landa lanean ari da musikari eta trobadore gisa, beti ere genero ikuspegiaren arabera. Hamaika musika taldeko kide, KD ugari plazaratu ditu, inprobisazioari buruzko ikastaldi ugari eman eta antzerki eta narratibotako liburu anitz argitaratu ditu. 2012an repentismoari buruzko lehen on-line ikastaroaren monitorea izan zen.



## ***Abestiak eta korrandak: Kataluniako kantu inprobisatuari buruz solasean***

**ANAIS FALCO eta CHRISTIAN SIMELIO**

Izugarrikeria batzuk, beharbada egia direnak, kantuan bakarrik esan daitezke. Bat-batean sortutako bertsoak erakarpen indar handia dute kultura ugarietan eta katalana ez da salbuespen horretan. Ezin dugu ordea kantu inprobisatuaren praktika bakarraz berba egin: errealitate ezberdinak dira, imaginario bera praktikatzen dutenak, edo, isolaturik badaude ere, elkar erakartzen dutenak. Katalaneraz egiten den bertso errimatu, kantatu eta inprobisatuari buruzko aurkezpen txiki bat egingo dute.



[Anís Falcó](#). Etnomusikologian lizentziatua da. Hamaika esparrutako musika tradizionalaren interpretea ere bada. Kataluniako hamaika festetako musika adierazpenen ikerlaria. Hemengo eta hango musika topaketen ohiko antolatzailea. Gainera Centre Artesà Tradicionàrius guneko biolin tradizionalaren irakasle ere bada.



[Christian Simelio](#). Corrandista da Christian; katalaneraz inprobisatzen ditu kantuak. 15 urte darama kantua inprobisatzen, batez ere Katalunian ezagun diren generotan trebatua da. Horrezaz gain, hainbat esparru eta elkarteetan dinamikak sortzen dabil, eta hari esker ekimen ugari, horietako asko kantu inprobisatuari lotuak gauzatzen dira egun Katalunian.

---

## ***Performanceetako alderdi kultural, komunikatibo eta sortzaileak***

**PERE BESCOS**

Doktoretza osteko ikerketa proiektu baten ildoak aurkeztuko ditu Bescós Jaunak. Zentzu poetikoko sorkuntzan diren elementuen interakzioa aztertzea da ikerketaren xedea, zehazki bertsolaritzan eta poesia homerikoan diren elementuen interakzioa.



[Pere Bescós Prat](#). Barcelonako Unibertsitate Autonomoan Filologia klasikoan lizentziatua. Barcelonako Pompeu Fabran doktoratu zen “Komunikazio eleaniztuna” arloan. Doktore ondokoa egiten ari da Harvardeko (AEB) Unibertsitatean. Gaur egun, Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasle da; irakaskuntzan eta ikerketan ari da aldi berean. Homeroren poesia eta bertsolaritzaren arteko ikerketa konparatibo bat egin asmoz Europa mailako proiektu bat diseinatu berri du Mintzolarekin elkarlanean.